

El piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 54. alea 2002ko irailaren 13a



Batasuna, legez kanpo
“Frakon garaixak bizi dittugu
berriz!”



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL, S.A. Industriak


Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

**zuri esker
gracias a ti**



**MAPFRE
MAPFRE SORALUZE**



JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA

JULIA IBARZABAL ARRIETA

Gabolats, 5 b
Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Eskuko telefonoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10
20.590 SORALUZE




**IÑAKI
IÑARRA**

**HARATEGI ETA
URDATEGIA**

**Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze**

Mendata taberna



**Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)**

**Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87**



Beste mundu bat mundurako asmatzen

MIKEL SANTIAGO

*Mundu urriñetatik ziar
eten bako bidietan,
egunaz, euzkixa lagun,
eta izarrak lagun gabaz,
zetorren Ibiltarixa
bere buruagaz berbetan;
oñetakuak urratuta
eta soñekua zar-zar,
ez dakitt nundik norako
bide luzia oiñduaz.*

Toribio Echebarria, Ibiltarixanak

Ibiltari asko izan da historian zehar, munduan hara eta hona, eta oraindik ere asko dira, aberria utzi, eta bizimodu hobe baten bila abiatzen direnak, ametsak buruan eta bihotzaren zati handi bat atzean utziz. Ez da erabaki erraza, eta gainera, gehienetan, ez da borondatezkoa izaten, beharizanak eragina baizik.

Aspaldian, Plaentxian ere, atzerritik etorritako jendea ikus dezakegu. Orain, guri ere tokatzen zaigu, etorkinak gurean hartzea. Gu baino txarrago bizi direnekin elkartasuna adieraztea, gizalegea izan da beti, eta horrela beharko luke edonoiz eta edonon. Baina guztiok dakigu, zenbat arazo, oztopo eta muga aurkitzen duten, "lehen mundua" deitzen zaion honetara heltzea nahi duten asko eta askok.

Euskaldunoi ere, suertatu izan zaigu atzerrira joan behar izatea urteetan zehar.

Orain dela gutxi, Argentina joateko aukera izan dut. Argentina izango da, ziu-rrenik, euskaldun gehien jaso dituen herria. Gaurkoa baino egoera hobea izan du Argentinak, egun berriz, gorriak pasatzen ari da. Milaka etorkin jaso dituen herria, atzerrira begira bizi da, eta gazte ugari kanpora ateratzeko erabakia hartzen dabil dagoeneko.

Bertan, euskaldun askorekin egoteko aukera izan dut, bai Buenos Airesen, baita Rosario ere. Guztiak aipatu didate, Argentinako herriak zeinen ongi jaso zituen heldu zirenean. Bihotza erdibiturik dute, euskaldunak dira, eta baita argentinarrak ere. Argentinako herrian integrazten jakin dute, baina euskaltasun ezaugarri nagusiei uko egin gabe.

Rosarion oraintsu ospatu dute, bertako Euskal Etxearen "Zazpirak Bat"- laurogeita hamargarren urteurrena, eta bertan izan nintzen ospakizun nagusietan. Harrigarria da, Argentina guztiatik bildutako euskaldunek, zein modu sutsuan eusten dioten gure kulturari. Dantzariak, txistulariak, euskaraz mintzo zen jendea, euskaraz ikasten ari zen jendea..., euskal giroa nabari zitekeen Rosarioren, eta baita gure Herriak bizi duen egoerari buruzko kezka ere. Plaentxiar bat ere aurkitu nuen han, -nola ez!-, Felix Larrañaga, eta hark

oparitu zidan "Zazpirak Bat" Euskal Etxeko kide egin zenean gordetako pin-a. Pin historikoa, hark esan zidanez, Ikurriña, eta Argentinako bandera, bata bestearen ondoan. Baina, euskal aberria beti bihotzean. Agur bero bat, Felix.

Hala ere, behartuta aldegin behar izan dutenek, ez dute herrimina inoiz bazterterik izango. Horregatik, gogoan izan nahiko nituzke munduan beraien sorlekua uztera beharturik dauden guztiak, eta nire elkartasuna adierazi, atzerriratzeko beharrezan izan, eta oztopoak aurkitzen dituen orori. Ea noiz heltzen den, inor inoiz bere aberria uzteko beharrezan aurkituko ez den eguna. Joseba Sarrionaindiak oso ongi azaltzen du aberriagabearen sentimendua:

"Aberriagabea, belaunak azaldu zitueneko lekuetara ez da egundo itzuliko, nahinon bizi delarik arrotz bizi da, oroimenez eta perfekzio gogoz.

Bere baitan daraman herrialdea inguruan adierazten zaion probintzia baino ederragoa eta duintsuagoa da.

Horregatik bizi da errorik gabe eta konformitaterik gabe, aide legez eta hut-sune gisa besterik gorpuzten ez den beste mundu bat mundurako asmatzen."

Joseba Sarrionaindia, Ez gara gure baitakoak.



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefona 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal,
Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan,
Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi,
Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta
Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Oregi eta Jon Basauri
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.850 ale
Inprimategia: Gertu Koop. Azala: Aitor Madrid
Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkari-ko esanetan
eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du
euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Garbi ikusten da erabaki politikua izan dala. Juan dira argumentatzen kriston lelokeri pila batekin, legalki eusten ez diran "froga" multzo batekin, gu desagerrarazte- ra mundu politikotik. Konturatu dira, subiranotasunaren bidian aurrera egin dogula eta zelanbait piztu egin dogula eztabaida hori Euskal Herri osuan. Gaur egun autodeterminaziño eskubidiaz berba egiten da, independentziaz. Hori moztia nahi dabe.

Mobilizazio ugari izan dira herrian ilegalizazioaren aurka.

Gutunak

Elkarrizketa

Askatasunari buruzko teoriak

Paraplegiko batek bere lagun bati esan omen zion:

-Oinez ibil ahalko banu, aske izango nintzateke txoriak bezala, eta orduan hobeto biziko nintzateke, eta...

Bere lagunak erantzun omen zion:

- Zuhaitzak ezin daitzek mugitu baina esan didatenez haiek ez lukete beraien askatasuna txorien askatasunarengatik aldatuko.

Artea eta filosofia, poetak gaiarekiko bere eritzia ematen du:

- Bizitza honetan bakoitzak jaiotakoan egokitu zaion askatasunaz gozaten du, gurasoek eta haiek, inguruko gizarteak, heziketak eta abarrek emandako bizitzak baldintzatua. Askatasun hau norberak bere bizitza gidatzeko "askatasun osoz" hautatutako bidea-

ren arabera, era batean edo bestean aldatu egingo da urteek aurrera egin ahala; hau da, inork ez dakizki, momentuz, etorkizunaren nondik norakoak eta -----duen edonor errege zein bufoi, alkate faszista zein preso politikoa edo "zuhaitz" zein "txori" izatera iris daiten.

Honela, badirudi bizitza aurrera dihoala eta jendea da, epaile eta politikoa, naturaren legea da, gaixotasunak (paraplegia) edo hondamendi naturalak (uholdeak) edo bizitzaren filosofia (bizitzeko moduak) drogadikzioak (heroína, kokaina), sektak, edo sinpleki siniskera erlijioso erradikalak (katolikoa, islama), hauek guztiak dira denboraren martxan norbako bakoitzaren askatasuna baldintzatzen dutenak.

Gabriel Galan
Tio Mode
Tapia

Eskerrak guztioi

Dagoeneko urtebete joan da nire maiterik kuttunena (Iñaki) eta lagun min bat (Asier) galdu nituen une goibel hartatik. Euskal preso politikoen dispersio egoerak eragindako auto istripu hartan, ni neu ere larriki zaurituta gertatu nintzen. Igarotako urte honetan kota ezin ahalakoak izan dira jasotako animo eta elkartasun adierazpenak. Guztioi, zeinahi izanda ere zuen pentsamoldea, nire eskerrik bero eta zintzoenak zuei guztioi. Nire eta guztion izenean, ESKERRIKASKO !

Irantzu Benito (Iñaki Saez, euskal preso politikoen dispersioaren eraginez hildako Soraluzeko EH-ko zinegotziaren emaztea).

Agenda

HELDUEN HEZKUNTZA IRAUNKORRERAKO GUNEA

Matrikulak irailaren 20arte.
Euskeraz nahiz gazteeraz egin daiteke.

Ikasketa ofizialak dira eta gainera dohainik da.
943753017 Telefonoan 16:00etatik 19:00etara bitartean.

"GORA EUSKAL HERRIA!"

Manifestaziñua
Zapatuan 17:30etan, Bilbon.

UDAZKENEAN DEBABARRENA EZAGUTZEN

12-16 Urteko gazteendako
2 Irteera: Karakatera eta Mendarora Espereologia, trekkinga, vivacka mendian...
Izena emoteko: 943 75 13 04 (Pil-pilean)
Elgoibar, Mendaro eta Soraluzeko Euskara Elkarteen eskutik.

JABIER ALBERDI

HARATEGI
ARTISAU ERARA



ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.


Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Etxabe harategia

Euskal txahalkia - Bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak
Tfnoa: 943752375

Javier Alonso Zelaieta
Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

Kontulan

Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfnoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

Zer irizten dotsazu?**Zelan igaro dittuzu oporrak? eta nun?****Eider Varela****19 urte****Ikaslia / Aerobikeko irakaslia**

Uztailian hemen egon naiz baina abuztuan Tunezera juan nintzan bi aste pasatzera. Bertako kultura, jendia ta klimia zoragarriak pentzau jatazen.

**Jose Ibargoiien****67 urte Jubilatua eta****Gregorio Portu****86 urte Jubilatua**

Gu bata Zarautzen ta bestia Donostian egon gara. Udan danok kostala aldera nahi izaten dogu euzkixa hartu ta trankil pasiatzeko.

**Puri Salgero****53 urte Etxekoandria**

Abuztuan kanpora juan naiz, Extremadurara familia bisitatzera. Han hemen baino hobeto egon gara, egualdixak be lagundu ein dosku ta.

**Iker Amezua****7 urte Ikaslia**

Nik uda osua Kandantxun pasatu dot aitta ta amakin. Oso ondo ibili naiz ze Jakara be juaten nintzan lagunekin jolastera.

**Ino Garrido****43 urte Etxekoandria**

Uztaila hemen pasatu dot ta abuztuan berriz, Extremadurara juan nintzan senidieri bisittia eittera. Oin nahixao dot hemen egotia baina han behintzat giro ona ein dosku.

Ugaitz Catalan eta
Enara Agirre



SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Ehundaka lagun omenaldian



Joan zen astean egin ziren, joan zen urteko irailaren 9an Lurdes Txurruka presoa bisitatzen zijoazela auto istripuz hil ziren Asier Heriz eta Iñaki Saezen omenezko ekitaldiak. Ekitaldirik arrakastatsuenak, Ekon taldeak ostiral gauetan Gaztetxean eskeini zuen kontzertua eta domeka arratsaldean Plaza Berrian egin ziren omenaldi eta manifestazioa izan ziren. 400 Pertsona inguru batu ziren eta estatu espainiarraren sakabanaketa sistema eta alderdi politikoaren indiferentzia salatu zituzten.

Plaentxiar baten heriotza auto istripuz

Irailaren 1ean Idoia Areitioaurtena Mendizabal 27 urteko plaentxiarra hil zen auto istripuz. Idoiak, A8 autopistaz Donostia aldetik Plaentxiara okindegira lanera zetorrela, goizeko 7:30etan, Usurbil parean bidetik atera eta heriotza aurkitu zuen. Irailaren 2an Soralezeko parrokiaren izan ziren hileta elizkizunetan ehundaka senitarteko eta lagunak eman zioten azken agurra Idoiari.

KZ-Gunea zabalik

Berriz ere zabalik daude Internetarako ateak. Egunero, goizeko 9:00etatik eguerdiko 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara zabalik iango duzu KZ-Gunea.

Aurten ume gutxiago eskolara

Astelehena, goizeko 10:30etan hasi zan ofizialki Ikastetxian eta Istitutuan aurtengo ikasturtia. Aurten 2 urtekuen mailan, 23 ume matrikulatu dira, juaun zan urtian baino 9 gutxiago. Baina aldiz, gainontzeko mailetan 12 ikasle berrik emon dabe izena; Ikasle berri hauetatik, 7 ekuatoriarrak dira eta beste bostak Ermua, Eibar, Madrid eta kantabriak. Era berean, ikastetxea eraberritzeko lanen lehiaketak zabalik jarraituko du hil honen 20 arte. Orduan jakingo da zein izango den lanen enpresa arduraduna.



Kiloko ongo galanta



Iturbarriko neskatila kiloko perretxikuari eutsi ezinda. Non topatu zuten? Galdetu diegu baina ez digute esan. Tokia ezkutuan egongo da baina perretxikuak garbi asko ikusiko dira.

Albesako eraikina eraitsi da udan



Lantegiaren eraisketa lanen parteirik haundiena abuztuan egin da, bide mozketara eta abarrekin herritarrei ahalik eta eragozpenik gutxien sortzeko. Orain lanen bigarren fasea hasiko da eta Udalak irailaren 2ko batzarrean erabaki zenez "Construcciones Galdano" enpresa izango da 460.803 eurotako aurrekontuarekin, zubi berria egiteko lanen ardura izango duen enpresa eraikitzailea. Lanak aurrera doaz eta urte honen amierarako zubia amaituta izango omen da.

ITUR iturgintza

**Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak**

Santa Ana, 20 Behea
Telefonoa: 943 75 12 41
Sakeleko telefonoa: 639 17 96 96



BELARRAK
LORADENDA ETA BELARDENDA
EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 behea
Tel.: 943 75 30 11
Eskukoia telefonoa: 646 43 90 40
20.590 SORALUZE



EAJ eta Batasunaren mozioak



Irailaren 2an Udaletxeko batzar aretoan egin zen batzarra istilutsua izan zen. Batzarra hasi orduko, Alderdi Sozialistako Soledad Del Bosque zinegotziaren eta batzar aretoan batutako jentearen arteko irainak hasi ziren. Hala ere, batzarrek aurrera egin zuen eta beste puntu batzuk eztabaidatu ostean, EAJk Santa Polako atentaua gaitzesteko mozioa aurkeztu zuen. Mozio honek, Santa Polan hil zirenen senitartekoei samina eta elkartasuna adierazi, ETari jarduera terrorista geldiarazteko eskatu eta injustiziarri aurre egiteko bide bakarra politika, elkarriketa eta demokraziaren bidea dela azpimarratzen zuen besteak

beste. Mozioa EAJ, EA, PP eta PSOE alderdietako zinegotzien aldeko botuekin eta Batasunaren aurkako botuarekin onartu zen. Momentu horretan PP eta PSEeko zinegotziak jeiki eta batzar aretoa laga zuten, azken honen eta batzarrean ikusle moduan zegoen jendearen arteko irainak errepikatuz.

Batasunaren kontrako botuaren azalpenean, Santa Polan gertatuagatik samina adierazi zuten eta gertakizun horren ardura, gatazkari irtenbideak bilatzeari uko egiten diotenengan dagoela adierazi zuten.

Honen ostean, Iñaki Saez eta Asier Heriz Plaentxiarren heriotzaren urteurrenien, Eusakl Presoen eskubideak errespetatzeko eta sakabanaketa sistema gaitzesteko eskatzen zeban moziñua aurkeztu zeban Batasunak. Mozioak 5 puntu zituen eta horietatik 3 onartu ziren EAJ, EA eta Batasunaren aldeko botuekin. Onartutako puntuetan, gizarteak behin eta berriz azaldutako nahia errespetatzeko eskatu, dispersioa estatuaren "mendekutat" jotzea (EAJ eta Earen abstentzioarekin), dispersioa gaitzetsi eta presoak gerturatzeko eskubidea azpimarratzen ziren besteak beste. Herri-tarrei konzentrazio baterako deia egiteko eskatzen zuen azken puntuak, EAJ eta Earen kontrako botuak jaso zituen eta ez zen onartu.

Pintadak eta margoketak herrian



Batasunaren ilegalizazioaren berria jakin zenetik hona, dozenaka pintada azaldu dira herrian; "Audencia Nacional 200 kilos de amonal", "Batasuna aurrera" moduko goiburuak irakurri ahal izan dira. Pintadez gain EAJ eta Earen egoitzen fatxadetara, kolore hori eta gorrizko pinturak jaurti dituzte. Dagoeneko Udalak garbitu ditu kaleetako pintadatik gehienak.

1.4xx pertsona bizi gara Plaentxian

Joan zen irailaren 2an egin zen Udal Batzarrean onartu zen 2.002ko urtarrialren leko dataz egindako Biztanle Errolda. Errolda honen arabera 4.175 pertsona dira Soraluzen bizi direnak. Azken urteetan gora egin du Soraluzeko biztanle kopuruak.

Instalaciones Kalebarren S.L.



20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34

Lonbide taberna

*Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak*

Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07



Telefona 75 24 09

ARRANO tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU



Batasuna, legez kanpo

“Frankon garaixak bizi dittugu berriz!”

Uda gogorra izaten ari da aurtengoa Batasuna alderdiarendako. Abuztuaren 27an, Espainiako Auzitegi Nazionalak aginduta, Ertzantza eta Espainiako polizia Batasunak hiriburuetan dituen egoitzak ixten hasi ziren eta beste herri batzuetakoak ixten jarraitu dute. Baltasar Garzon epailearen autoak, Batasunaren jarduera politikoa debekatu zuen eta irailean Espainiako Gobernuak eta estatuko fiskaltzak, Batasuna legez kanpo utzi dezan eskatu dio botere judicialari.

Erabaki horien aurrean, ugariak izan dira herrian ilegalizazio prozesuaren aurka azaltzeko egin diren mobilizazioak. Batasunako militante eta jarraitzaileek konzentrazio eta manifestazioak antolatu dituzte eta Batasunako zinegotziek, ilegalizazioaren aurkako idatzi bat aurkeztu dute Udalean. Azpimarratu behar da Soroluzen Batasuna 2. Indar politikoa dela EAJren atzetik eta azkenengo hauteskundeetan 512 botu jaso zituela eta aurrekoetan 717. Hortaz, pentsatzea da Batasuna legez kanpo uzteak eragin handia izango duela gure herriaren egunerokotasunean.

Herri Batasuna zena 1.980 inguruan sortu zen Soroluzen. Gero “estatuaren erasoak sahiesteko” izenez aldatu eta Euskal Herritarrok bihurtu zen eta azkenik oraindela bi urte inguru, “prozesu bateratzaile” baten ondorioz Batasuna sortu zen. Gertakizun guzti hauen jomuga diren aldetik Soroluzeko Batasunako zinegotziekin berba egin dugu ilegalizazio prozesuaren inguruan duten eritzia jakin eta etorkizun hurbilerako dituzten asmoen berri jakin nahian.

G- Legez Batasunako zinegotziak zarete oindio?

“Sinisten dogulako gabitz borrokan eta hori ezin leike desagertu, ez Frankok eta ez Aznarrek.”

E- Prentsan etorri dana da, Udaletxe bakoitzaren baitan daguala erabaki hori. Orainartian gu Batasuna moduan aurkeztu gara Udaleko batzarretan eta Batasuna moduko tratamendua jaso dogu. Hain da sinesgaitza gertatzen daguana, hain da lotsagarria, jentia entzuten dabela baina ez dabela sinisten eta Batasu-

na onartzen dau beste talde politiko normal baten moduan. Egixa da oin oso zorrotz hasi dirala begiratzen izen kontueri eta ez dakigu noizarte jarraituko dogun udaletxian ofizialki Batasunako zinegotzi izaten.

G- Ze baloraziño egitten dozue ilegalizaziño prozesuaz?

E- Garbi ikusten da erabaki politikua izan dala. Juan dira argumentatzen kris-ton lelokeri pila batekin, legalki eusten ez diran “froga” multzo batekin, gu desagerraraztera mundu politikotik. Konturatu dira, subiranotasunaren bidian aurrera egin dogula eta zelanbait piztu egin

dogula eztabaida hori Euskal Herri osuan. Gaur egun autodeterminaziño eskubidiaz berba egitten da, independentziaz. Hori moztia nahi dabe. Ze gauza bat da ETaren kontra egittia eta beste bat Batasunaren kontra. Batasuna ilegalizatiarekin ETA amaittuko dala? mese-dez. Hau ez da Batasunaren kontrako eraso bat bakarrik; euskera eta euskal kutsua daukan edozer erasotuko dabe. Hau Euskal Herri eta euskaldun danon kontrako eraso faxista bat da. Nafarruan ikurriñakin eta euskeriakin gertatzen ari dana zer da, ETaren kontra egitteko? Berriz be Frankon garaixak bizi izaten hasi gara. Estatuarendako errealidade bakarra Espainia da eta beste errebindikaziño danekin amaittu bihar da.

Dana dala, gu herrixan sustraitutako jentia gara, ez kanpotik etorri edo karguetan agintzen dihardugunak edo... sinisten dogulako gabitz borrokan eta hori ezin leike desagertu, ez Frankok eta ez Aznarrek.

G- Eusko Jaurlaritzaren eta EAJren jarrera kritikatu dozue?

E- EAJ eta Earen ahotsak entzuten dira alde guztietatik, legez kanpo lagatziaren kontra, manifestaziño eskubidiaren kontra eta abar, antidemokratikua dala esanaz eta gero Ertzantzak gure egoitzak ixten dittu eta Eusko Jaurlaritzak manifestaziñuak debekatzen doskuz.



Ilegalizazioa salatzen hainbat konzentrazio eta manifestazio egin dira herrian.

Nora arraixo doiaz...Esaten dabe derri-gorrezkua dala hori egittia baina hori ez da egixa, insumisiñua egingo balebe beste kasu batzuetan egin dan moduan beste polizia batzuk egin biharko leukie lan hori eta etorriko diranak. Definitze-ko garaixa etorri jakue, erabakixak har-tu bihar dira.

G- Herri mailan euki dozue kon-takturen bat gai honen inguruan?

E- Ekainian moziño bat aurkeztu genduan Udaletxian eta onartu egin zan. Uztailian berriro idatzi bat aurkeztu genduan eta oin be idatzi bat aurkeztu dogu. Aurrera be, beste moziño berriren bat aurkeztu biharko dogu. EAJko 3 zinegotzik ilegaliza-zitiñuan kontrako sinadura emon zebe partikular mailan baina ofizialki ez doskue ezer esan eta EAJk ardura politiko haundixa dauka herri honetan. Asmua daukagu herriko era-kunde, alderdi eta talde ezber-dinekin batzeko eta babesa es-katzeko.

G- Datorren urteko Udal hauteskundieri begira zer aurrikusten dozue?

E- Momentu honetan Gar-zonek eta Gobernu Espainia-rrak guretako zer pentzautu dauken ez dakigu. Argi dauka-guna da, datorren udal hautes-kundietan hor egon bihar dogula eta gure ordezkari-tza bermatu bihar dala hauteskunde demokratiko batzuk izan-go badira. Guk uste dogu, EAJ, EA eta EBk zeozer esan biharko dabela, ezingo dabe holako egoera bat onartu ezta?

Ezingo bagina aurkeztu, ba, ehun-daka plaentxiar ordezkari-tzarik eta ahotsik barik geldittuko lirakez eta hori demokrazia baldin bada ba...

G- Irtenbiderik ikusten dotsazue egoera honi?

E- Irtenbide bakarra, indar abertzaliak bat egittia litzake. Lizarra Garazi moduko prozesu bat hasi, inor baztertu barik eta modu horretan gauzak bere le-kura juango lirakez. Egoera txarreneta-tik batzuetan argixa urtetzen dau eta gu ez gare inundik be etsita. Hori bai, esta-tutuaren bidetik ez dator konponbiderik.

G- Arranua itxiko dabela uste do-zue?

E- Berez ez leukie itxi bihar ze hau bazkidien elkarte bat eta taberna bat da baina...Garzonen autoko zerrendan ba-dator. Berdin jakue dana, hemen edo-zerk balio dau.



Batasunako zinegotziak iralaren 2ko udal batzarrean.

“Geure herrixan ez gara ezkutatuko eta ez daukagu inungo asmorik klandestini-tatera juateko, gu ez garala-ko ezeren errudun”

G- “Indarkeriaren eta ETaren ba-besle izateagaittik” baztertzen dute Batasuna...

E- Eta gatazkaren konponbidea eta

benetako bakea bilatzen duen alderdi bat izateagaittik. EAJkueri berdin ja-kue, GALen sortzailiekin, Frankismo garaiko agintari hiltzailiekin eta gu le-gez kanpo laga eta euskaldunak atxilot-zen eta torturatzen dittuztenekin egotia baina gurekin ez! Horreri ez jakue eska-tu gaitzespenik. PSOEk talde armatu bat jarri zeban martxan, Batasunak ez dau talde armaturik sortu, ETA askoz lehenagokua da. Gerra garaiko EAJko gudarixeri gaitzespena eskatu bihar ja-kue? Hemen bi aldetako biolentzia dago eta ETarena estatuarenaren ondorixo da. Hilketa eta heriotzak danok tristetzen gaittuzte baina hortik aurrerago juan eta gatazka hau behinbetiko konpondu bihar da Irlandan moduan, benetako borondatiarekin.

G- Ze asmo dauka-zue aurrera begira?

E- Lanian jarraitzia. Irailian aurrera etartzeko hainbat egitasmo genka-zen; Eskubideen Karta, EHNA bultzatzea eta Ba-kerantz egitas-mua (herri-ko gainontzeko talde poli-tiko eta sozialekin bilerak egittia) aurrera etaratzia Soraluzen. Horrek ziran gure asmuak baina ilegaliza-zitiñuakin ez dakigu zer gertauko dan.

Ez gara etxera juango. Geure herri-xan ez gara ezkutatuko eta ez daukagu inungo asmorik klandestinitatera juate-ko, gu ez garalako ezeren errudun. He-men herri baten izateko nahixa ukatzen da eta guk aurrera egingo dogu herri hori berak nahi dabena izan arte. Guk euskal herrixa eraikitzen jarraituko dogu. Aurrera egingo dogu.

Egoitz Unamuno

Gainontzeko alderdiei ere ilegalizazioaren gaineko eritzia eskatu diegu baina Alderdi Popularrak ez beste inork ez digu helarazi, datozen aleetan ahaleginduko gara eritzi horiek ere batzen. Hona hemen Alderdi Popularrarena:

Alderdi Popularraren eritzia

“Alderdi Popularrak Alderdi politikoen legea onartu behar izan du ETaren terrorismoari eta talde honek Batasunarengandik jaso dezakeen laguntzari aurre egiteko beste neurri bat bezala, beste batzuen betegarri. Lege honen bitartez eta beti esan izan dugun bezala, ez dugu ideien kontra egiten, ez eta independentismoa eta abertzaleta-

sunaren kontra ere, elkarbizitza demokratikoa nahasten duten indarkeriari laguntza zuzena ematen dioten manifestaldi eta jarrerak arautu besterik ez dugu egin nahi. Duela 25 urte eskuratu ahal izan genuen demokraziak, esku-bide batzuk ematen dizkigu, baina baita behar batzuk eskatu ere. Inongo alderdi politikok ezin ditu eskubideak hartu eta beharrei muzin egin, aniztasunarekiko eta bakean oinarrituta-ko elkarbizitzarekiko errespetuari hain zuzen. Ez du esan nahi Kode Penal nahikoa ez denik, beldurra eta zigorgabetasunaren aurkako borrokarako beste tresna bat dela baizik, baina legezko estaldura bat beharrezkoa da. Gainera, demokraziak ezartzen dituen baliabide ekonomiko, hautes-kundeetako leku eta beste, Eta erakunde terroristaren helbu-ruak betetzeko erabiltzea galarazi nahi dugu.”

Pelota

Txipi eta Callesen garaipena San Andresen



Uztailaren 24an jokatu zen San Andresko Munoa frontoian, Iñaki Saez eta Asier Herizen omenezko pelota txapelketako finala. Izugarritzko jente pila batu zen finala ikustera eta partidu bikain baten ostean, Oskar Jorge "Txipik" eta Andoni Callesek irabazi zuten,

Zigor Alberdi "Orbe" eta Iraultz Arluziagaren kontrako finala 22 eta 16ko emaitzaz. Irabazleendako eta irabazleordeendako sarixa bildots bana izan zen. Partidua amaitu ostean, Euskal Presoak Euskal Herriratzeko aldarrikapena egin zuten partehartzaile guztiak.

Laskurain lehen garaipena Segobian



Igandean lortu zuen Laskurainek profesinaletako bere lehenengo garaipena. Laskurainek Fresno del Cantapinon, Segobian jokatu zuen, Muruamendiarekin batera Camarero eta Urberuagaren kontra 25 eta 22ko emaitzaz. Orainartian Aritzek profesinaletan jokatuta zeukazen 5 partidua galdu zituen (Elgoibarren azkena). Berak adierazi zigunez, oso ondo sentitu zen partidu guztian zehar eta itxura baten, orainartean izan dituen eskuetako minak be desagertu omen zaizkio.

Asier Heriz eta Iñaki Saezen omenez asteburuan San Andresen jokatu zen Plaentxiarren arteko partiduan 30 eta 23ko emaitzaz lortu zuten garaipena Onar Muguruzak eta Andoni Callesek, Koldo Heriz eta Jon Arrietaren kontra.

Txirrindularitza

Frantziarrak nagusi San Andresen



Abuztuaren 14an jokatu zen Soralezko Txirrindulari taldeak antolatuta, jubenil mailako LV. San Andres Igoera. 62 izan ziren lasterketan parte hartu zuten txirrindulariak eta Gascogne taldeko Lionel Suhubiette 18 urteko txirrindulari gaztea izan zen lehenengo hel-

mugan. Talde frantses hau San Paul De Dax hiriko taldea da. Bigarren txirrindularixa Transportes Ernioko Ugaitz Artola Usandizaga txirrindularixa izan zan eta hirugarrena Kontrukciones Metalikas Urretxu taldeko Iker Juantorena Azpiazu izan zan.

Aerobika

Aerobickeko 2 talde Itxaropenan



Astearte goizean hasi ziren juebituendako aerobik eskolak. Aurten bi talde dare eta martitzen eta eguenetan emongo dittue eskolak. Santa Ana jaietan be eskeini zebe aerobik erakustaldi bat eta ikusi zan bai entrenamentu gogorak egitten dittuena.

Ezozi Zangitu Ikastolako lehen andereñoa. *“Lehenengo urtietan zotzekin erakusten genduan idazten”*

Ezozi “andereñoari” elkarrizketa egitera joan garenean, frontoiko Ikastola zaharreko gelan aurkitu dugu umeendako materiala prestatzen. Ezozi Zangitu Plaentxiarra da jaiotzez eta gaur egun ere Plaentxian bizi da jaiotako etxean. “13 Urte” ditu eta 35 urte baino gehiagotan, Ikastola sortu zenetik, ehundaka eta ehundaka umeri erakutsi die irakurtzen. Bera izan zen Plaentxiako Gure Ametsa ikastolako lehen andereñoa.

Zela eta noiz sortu zan ikastolia?

Ikastolia sortu zan 1.967xan edo. Guraso talde batek sortu zeban. Euskeriagaittik arduratuta, euren seme alabak euskeraz ikasi bihar zebela erabaki zeben eta eurak sortu zeben Ikastolia. Andereño bat bihar zala ta ba, neri esan zosten eta nik ezetz, nik ez nekixala ta... azkenian baietz eta baietz, bilera batzuk ein genduzen, orduko abade zan Luis Mariakin da beste guraso talde batekin. Gero Elgoibarrera eta Donostiara (Erreterixako ikastolara) bialdu ninduen ikastera. Lehenengo Erregetxian egon ginan 3-4 urteko 40 ikasle ingurukin neu bakarrik eta gero Mertxe Epelde eta beste batzuk ikasliak gero eta gehiago ziran eta. Katuak katakumak moduan aldatzen ginan gu lekuz; Ezozi bidian, Batzokixan Plaza Merkauan, Itxaropenan, monjetan, sakristixan, Gaztetxe azpitan, errekaldeko hospitalian, udaletxian eta azkenian frontoira.

Kopixak be eskuz kalkuakin ein, ta gero Guardia zibilak etorri erregistratzera multikopistia genkala ta; “aquí se hacen paskines!”. Zera jauan han!

Zela ziran orduan gauzak?

Materixal gutxi zeuan euskeraz eta gehixena beste aldetik ekartzan zana; Xabiartxo ta Martin Txilibitu. Orduan borondatia genkan galanta. Idazten be lehenenguetan zotzekin erakusten gen-



Ezozi Zangitu andereñoa bere umeendako materiala prestatzen.

duan, kristalekio lurrunian, lurrian kojinen gainian jarritta, abestixak ikasi, asetero mendira jua, basarrixetara ta... Orduan ikastolia klandestinua zan guztiz. Ispektoria etortzen zanian, hartu umiak eta arratsalde pasa mendira. Kopixak be eskuz kalkuakin ein, ta gero Guardia zibilak etorri erregistratzera multikopistia genkala ta; “aquí se hacen paskines!”. Zera jauan han!

Euskerian aldetik zer eragin izan dau Ikastoliak?

Orduan umiak oso gitxi eitten zeben euskeraz. Behin mutikotxo erdaldun bati eta zotsen ez zekixala euskeraz eta berak: “pero voy a aprender porque voy a la Ikastola!”. Gelan euskeraz bakarrik entzuten da eta jente gaztia be kontzientziauta dao. Bada zeozer, garen egoeran gainera. Len dantza talde eta euskal jaixakin lotuta zeguan... Oin hori danori aldatuta dao.

Lenagoko umietatik gaurkuetara diferentziarik igartzen dozu?

Demasa. Oinguak sinpletsuauak edo. Gurasuen aldetik presio gehixao dauke. Lehen harri gainetik harri gainera, jausitta be mekromina emon eta esan ezer pasatzen eta oin eskutik heldu bihar eta jauzi ezker... ene! Oinguak telebisio larregi ikusi eta gauza

batzuetan mundu gehixao, baina oin aspertu eitten dia eta len ez. Lenguak bihurrixauak zian. Oin be igartzen da, basarrikuak beste ikutu bat eukitzen dabe.

Umetan interesik gehixen jolasendako eta etxeko ipuinendako izaten dabe. 5-6 urtekin emoten dabe kanbixua. Batzuetan trunkil lagatzia izaten da onena, zoriontsu izatiak be ez dau gitxi balio ta. Ikasi barik ez da inor gelditzen beti etortzen da biharra ta.

Behin mutikotxo erdaldun bati eta zotsen ez zekixala euskeraz eta berak: “pero voy a aprender porque voy a la Ikastola!”

Zela bizitzen da zeure ikasliak hazten ikustia?

Hori dotoria da. Sarrittan pentzatzen dozu, ikusi kalia eta “Dios, hik pasau erain dostazik arratsaldiak eta oin hor hoia kasorik be ein barikan?”. Baina gustora.

Egoitz Unamuno

Jai flasha



Santa Ana jaietan umiendako jarri zan haizez puztutako jolastokixan debekatuta zeguan arren, 13 urtekuak aurrenengo.



Tanborradan be izaten dia barre eta edanerako momentuak. Ez zarete konturatu Ezozki bidetik beherunzkuan jentiak gogortsuago jotzen dabela.



San Roke Txiki egunian zezenak beriak eta bi egin zittuan; Plaza Zaharreko bankuak apurto, gaintetik salto egin, Plaza Barriko iturrira ixo.



San Roke Txiki eguneko protagonistetako batzuk trikitilarixak izan ziran, inungo nomina barik herrixa dantzan jarri zeben.



Tortila lehiaketan partehartzailerako asko izan zan betiko moduan. Maila izugarria izan zan eta jentiak bizkor asko garbittu zittuan platerak.



San Martzial auzoko jaietan inkondizionalak bakarrik izan ziran. San Martzial, zer hintzan eta nun hao. Animo!

Gurutze Ariznabarreta

"Zoriontasunan giltza norberak daroia barrenian"

Danak daka bere sasoi, eta Gurun kale kantaleko egunen sasoi bukatziar dagan honetan zer hoberik Guru bera galderon aurrian jartzia baino.

"Enarari pasatzen dotsat sail honen errelebu herriko kale kantaletan saltsa pixkat egon dein. Eskerrak nere boligrafuan tintatik pasau zarien danori, mila momentu politt pasaaraztiarren"

Zaletasunak

Musikia entzuten, zinian pelikulak ikusten, argazkiak etarutzen eta olerkiak irakurtzen asko disfrutatzen dot.

Zenbakixa, animalixia, koloria, lekua.

7xa, tximeletia, urdina, haizia gustora hartzeko jende bareko edozein leku.

Bapo geratzeko moduko afarixa.
Esan bihar da gosia eukitzia modukorik ez daukala asko gozatzeko, baina tira! Aukeratu hasi ezker. Udako iluntze baten mahaixa kanpora etara ta entsaladia eta patata tortilla edar bat jan sardau botilliakin. Gero txirtxilak entzunaz berrikeretan ein.

Ze eruangozenduke irla bakarti batera?

Argi daukat badaezpada be barkua gero bueltan etortzeko. Ta kruzeruan nere maitte kuttun guzti guztiak.

Ze falta jatzu?

Buruan iparrorratz bat ezartzia, despistehutsa naiz, beti nabil galduta.

Munduko gauzarik inportantiena?

Familixa sendo bat eukitzia eta bizitza pozik eta umoretsu hartzia.

Zoriontsu izateko klabia?

Zoriontasunan giltza norberak daroia barrenian. Kanpotik etorriko jakulakuan egon ezker, jai dao!

Gogoko marrazki biziduna?

Mazinger Z

Egixa borobila da...

Ez dogula baloratzen daukaguna galtzen dogun arte.

Ez jatzu ahazten...

Inguruko jentia erakusten dostan guztia, mundu guztiak daka zeozker erakusteko.

Botere bat izatekotan ...

Dudarik barik, sufridu barik bizi ahal izateko boteria.

Ezin dozu jasan...

Edozein eratako mina.

Udazkena...

Mila kolore zuhaitzetan ta zeruan, perretxiak, gaztañak, argi berezia...edertasuna

Txikittako oroitzapen bat?

Tira umetakua izan biharko dau, txikiak ondiok be bagara ta! Argateko

Bertso Begiz

*Zer esan ere ezta kitela
laga nau Gurutze honek,
horretarako ahalmena izan
ohi dabe gutxi batzuek.
Bi metroko morena
badakigu ez dena
baina bai lagun bat fina,
deskantsutxo bat merezi daben
langile nekazina.*

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)



Gurutze Ariznabarreta

asto gainian marmitxen artian basarri-
ra igotzen nebanekua. Euri mordo bat
ein dau harrezker!

Bitxikerixaren bat?

Izenen kontura istorixa mordo bat
egongo dia. Amamari adibidez beti
Nati deitu izan dotsagu ta hor nun
enteratzen naizen Maria Eugenia deitzen
dala. Neri berriz, Hirukurutzeta
egunian jaixua naizenez, Miren
Gurutze jarri zosten baina gero egune-
rokuan mila modutara deitzen doste,
mila izen dakaraz (Gurusne, Miren,
Gurutz, Gurutze, Kurutz, Guru...)

Txistia

Badoiaz bi baserritar Madridera.
Sekula zinian egon ezta kuak berak.
Sartzen dia pelikulia ikustera sala baten
ta pelikulia hasitta ta dana ilun ilun ...
halako baten etortzen jakue akomoda-
doria atzetik linterniakin ta eitten dau
Eustakiok eze: -Aparta Josepa ke biene
bixikleta!!!!!!

Gururu

Argazki zaharra

Ikastolia sortu berritan 1967-68 ikasturteko 2. mailako taldia



Erregetxeko lokaletan etaratako argazkixa da. Egurrezko lurrian ba ei zeguan zulotxo bat merkatu plazara emoten zebana eta bazkaritarako bakoitzan amak zer erosi zeban ikusten zeben handik neska mutikuak. Argazkixan; Ezosi Zangitu (Andereñua), Imanol Mendizabal, Xabier Leturiondo, Aitor Iñurrieta, Eli Orbea, Aintzane Iñurrieta, Ana Mendikute, Alexander Amor, Yosu Leturiondo, M^a Jesus Iñurrieta, Jabier Sarasua, Zezilia Astiazaran, Lazaro Trebiño, Ramon Elizgarai, Bakarne Lizarralde, Jabier Muguruza (+), Anton Uriarte (+),

Maite Alberdi, Jose Ig. Galarraga, Juan Luis Iñarra, Luis M^a Martin, Eli Guridi, Ana Gallastegi, Patxi Igartua, Koro Zenitagoia, Ane Etxabe, Luis Jabier Oregi, Rosa M^a Uribelarra, Idoia Aldazabal, Nerea Zerrajon, Alberto Zarobe, Arantxita Aranda, Felipe Oregi, Patrizia Iriondo. Eta egun horretan piper egin zebenak; Nerea Unamuno, Oskar Otxoa, Jose Ig. Garzia, Iñaki Amategi, Beatriz Arizaga, Jose Ig. Nuñez.

Ezosi Zangituk lagatako argazkixa.

Egoitz Unamuno

Eukararen ajieri, sendabelarra

Dana jatia egin dosta-
GAIZKI



Dana jan eragin dosta
ONDO

Gaztelaniazko kalkoa "hacer comer"- jatia egin Batuan "-arazi" zabaldu da eraginen lekuan, -arazi hori arrotza zaie-nez eta kasu batzuetan eragin hori transmititu ez denez, egitura berria sortu dute gaztelanian oinarrituta.


Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!


DEITTU
BIZKOR BIZKOR
943 75 13 04 ra



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



**Limpiezas
industiales**

Limpiezas

Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

Matrikulazio kanpaina aek-n



Kantu afarian euskaltegiok
"Behin batian Loiolan"
abestu zuten



Asteburuko barnetegian
jolaserako tartea ere izan zen

Urtero bezela, Sorluzeko aek euskaltegiak matrikulazio kanpaina berria martxan jarri du, euskara ikasi nahi duten guztiak apuntatu daitezzen. Klaseak urrian hasi eta uztailean amaituko dira, eta tarte horretan euskara ikasteaz gainera, ikasleek hainbat ekintza osagarritan parte hartzeko aukera izango dute: mendi irteerak, txangoak, antzerkia, asteburuko barnetegia, kantu afaria, etab.

Zer eskeintzen du aek euskaltegiak? Euskarazko eskolak maila guztietan. Horretaz aparte, aurten EGA ateratzeko

eskolak emango dira, talde bat osatzeko adina lagun apuntatzen bada.

Prezioak: matrikulatzen diren guztiek udalaren dirulaguntza jasoko dute. Prezio bereziak izango dituzte langabetu, guraso eta ikasleek.

Nun apuntatu: Sorluzeko aek-ren egoitza frontoian dago, maisuen etxean. Matrikulatzeko ordutegia 10etatik 12etara izango da goizetan, eta 16etatik 19etara arratsaldeetan. Telefono zenbakia: 943751434 da.

Ez pentsau bi bidar, apuntau lehenenguan, onenian; aek-n.



Euskaltegioko ikasle eta irakasleak
Zerainera egindako bisitan



Aurten ere
DANOK KORRIKARA

FER.

S.A. Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze

Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



Lakuesta

Optika



Ikusmen arazozen frogak eta argi-
bideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea

20590 Soraluze

Tfnoa 943 75 30 59



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe


Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



TXURRUKA JATETXEA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

CAR OF THE YEAR



2002

Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik

2002 urteko autoa da Europan



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22

Tel.: 943 20 09 66

EIBAR

307 
PEUGEOT